



**Mugikortasun egonaldien araudi orokorra**

**2022-2023 ikasturtea**

## AURKIBIDEA

1.	STUDIES EGONALDIAK: ERASMUS+, SICUE, LATINOAMERICA ETA MUNDUA	3
1.1.	2.AUKERATUA IZATEKO BETE BEHARREKO BALDINTZAK	3
1.2.	PROZEDURA	3
1.2.1.	Aurkezpenak	3
1.2.2.	Destinoen esleipena	4
1.2.3.	Nominazioa	4
1.2.4.	Matrikulazio prozesua	4
1.2.5.	Egonaldiaren aurreko beste dokumentu batzuk (Erasmus+)	4
1.2.6.	Egonaldiaren aurreko beste dokumentu batzuk (SICUE, Latinoamerica eta Mundua) 5	
1.3.	MATRIKULAZIOA HUHEZIn	5
1.4.	KREDITU KONBALIDAZIOA	5
1.4.1.	Konbalidazioak: Hezkuntza graduak	6
1.4.2.	Konbalidazioak: Ikus Entzunezko Komunikazioa gradua	7
1.4.3.	Konbalidazioak: Ikus Entzunezko Komunikazioa gradua	8
1.4.4.	Konbalidazioak: Humanitate Digital Globalak gradua	8
1.5.	NAZIOARTEKO ZIGILUA	8
1.6.	OSTATUA	9
1.7.	OHARRAK	9
2.	PRACTICUM EGONALDIAK: ERASMUS+, ESTATU ESPAINIARRA, LATINOAMERIKA ETA MUNDUA	9
2.1.	AUKERATUAK IZATEKO BETE BEHARREKO BALDINTZAK	9
2.2.	PROZEDURA	10
2.2.1.	Aurkezpenak	10
2.2.2.	Destinoen esleipena	10
2.2.3.	Hitzarmena	10
2.2.4.	Egonaldiaren aurreko beste dokumentu batzuk (Erasmus+)	11
2.2.5.	Egonaldiaren aurreko beste dokumentu batzuk (Estatu Espainiarra, Latinoamerica eta Mundua)	11
2.3.	MATRIKULAZIOA HUHEZIn	11
2.4.	OSTATUA	11
2.5.	OHARRAK	11
3.	AMAIERAN AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA	12

3.1.	ERASMUS+ STUDIES EGONALDIA	12
3.2.	ERASMUS+ PRACTICUM EGONALDIA	12
3.3.	SICUE EGONALDIA	12
3.4.	ESTATUAN PRACTICUM EGONALDIA	13
3.5.	LATINOAMERIKA ETA MUNDUA STUDIES EGONALDIA	13
3.6.	LATINOAMERIKA ETA MUNDUA PRACTICUM EGONALDIA	13
4.	ADMINISTRATIBOKI BETE BEHARREKO BESTE BALDINTZA BATZUK	13
4.1.	ALDAKETAK	13
4.2.	GARRAIOAREN DEUSEZTAPEN ASEURUA	13
4.3.	COVID 19AREN ONDORIOZ EGIN BEHARREKO FROGA MEDIKOAK	13
4.4.	EZOHIKO EGOERAK	14
4.5.	OSTATUA	14
5.	ASEGURUAK	14
5.1.	EUROPAR BATASUNA ETA SUITZA (Turkia eta Erresuma Batua kanpo daude)	14
5.2.	TURKIA, ERRESUMA BATUA, LATINOAMERIKA, EEBB ETA MUNDUA	14
6.	BISA	15
7.	BEKAK ETA DIRULAGUNTZAK	16
7.1.	ERASMUS+ BEKA	16
7.2.	EUSKO JAURLARITZAKO MUGIKORTASUN BEKA	18
7.3.	BESTELAKO DIRULAGUNTZAK	18
8.	ERREFERENTZIAZKO PERTSONAK	19
9.	ERANSKINAK	20
9.1.	EUROPAKO ASEGURU POLIZAREN EREDUA	20
9.2.	EUROPATIK KANPOKO ASEGURU POLIZAREN EREDUA	23
9.3.	NAZIOARTEKO IKASKETA EGONALDIEN PROZESUA	25

# 1. STUDIES EGONALDIAK: ERASMUS+, SICUE, LATINOAMERICA ETA MUNDUA

Ondorengo ataletan azaltzen da Studies egonaldietan parte hartzeko prozedura eta baldintzak.

## 1.1. 2.AUKERATUA IZATEKO BETE BEHARREKO BALDINTZAK

**Hizkuntza ofiziala edo gehiengoduna ingelesez den destinoetan, esleitutako erakundeak eskatzen duen ingeles maila egiaztatu:**

- B2 maila, *Cambridge First Certificate*, *IELTS 5.0* edo *TOEFL 500* maila erakutsi behar da. Bereziki kontuan izango dira azken bi urteetan eskuratutako agiriak.
- Ikasleak horrelako ziurtagiririk ez badu, HUHEZIn hizkuntza azterketa egiteko aukera izango du, maila hori duela egiaztatzeko.

Europako beste hizkuntzaren batean B2 maila izanez gero, jarri mesedez harremanetan nazioarteko arduradunarekin.

**Espediente akademikoa:**

- Studies egonaldia EAetik kanpo egin ahal izateko modulu bakarra izan daiteke gainditu gabe, eta ezingo da izan practicuma barne hartzen duen modulu bat. Hau da, aurretiko practicumen moduluak gaindituta izan behar dira, eta modulu bakarra izan gainditu gabe.
- Nahiz eta esleipen momentuan baldintza akademikoak bete, ikasturtean zehar graduako koordinazio batzordeak, ikasleak mugikortasun programan parte hartzeko baldintza akademiko guztiak betetzen ez dituela ondorioztatzen badu, araudi akademikoaren arabera, mugikortasunetik kanpo geldituko da.
- Itxaron zerrendan baldintza akademikoak betetzen dituen ikaslerik balego, honi eskainiko zaio libre geratu den tokia.

Oharra: hautatuak izateko orduan, lehentasuna izango dute dagoeneko atzerrian egonaldirik egin ez duten ikasleek. Gure asmoa da ahalik eta ikasle gehienek izatea atzerrian egonaldi bat egiteko aukera.

## 1.2. PROZEDURA

### 1.2.1. Aurkezpenak

Aurkezpenak egingo dira HUHEZIn. Aurkezpenetan, mugikortasun programan parte hartzeko prozedura azalduko da, eta dokumentazio eta beka aukeren berri emango da. Informazio guztia eta eskaera orria MUdle-n daude eskuragarri.

Ikasleak **eskaera orria** eta **hizkuntza gaitasun agiria** MUdle plataformara igo behar ditu. Gustukoen diren aukeren arabera ordenatu behar da destinoen zerrenda, eta kontuan izan ikasturteko deialdi bakarra egoten dela. Behar duenak, hizkuntza probak egingo ditu Fakultatean bertan.

**Ikasleak ezingo du hautatu ikasturte berdinean mugikortasun programak eskeintzen dituen egonaldi desberdinetara.**

### 1.2.2. Destinoen esleipena

Egonaldiko destinoen esleipena egiteko ondorengo prozesua jarraituko da:

1. Eskaera guztiak aztertu ondoren, HUHEZIKO Nazioarteko Batzordeak EAetik kanpo egonaldia egingo duten ikasleak aukeratuko ditu, irizpide hauek kontuan izanda:
  - Espediente akademikoa.
  - Hizkuntza maila egiaztatzea.
2. Esleipenak Moodle-n argitaratuko dira dagokion epean.
3. Destino hori **onartu** egin beharko du ikasleak, Moodle-n aktibatuko zaion atalean.

### 1.2.3. Nominazioa

Destino bat esleitzeak ez du esan nahi egonaldia gauzatu denik. Mondragon Unibertsitateak ikasle horren nominazioa egingo du kanpoko unibertsitatean. Ikasleak ezingo du bere kabuz kanpoko Unibertsitate horretan matrikulazioa gauzatu.

### 1.2.4. Matrikulazio prozesua

Nominatu ondoren, ikasleak matrikulazio eskaera egiteko beharrezkoak izango dituen dokumentuak jasoko ditu kanpoko unibertsitateetik: plataformetarako sarbideak eta prozedura irizpideak. Ikaslearen ardura da matrikula eskaria egitea. Horretarako, une oro izango du nazioarteko koordinatzailearen laguntza.

Matrikula eskaera egin ondoren, kanpoko unibertsitateak ikaslea onartu beharko du. Orduan ziurta daiteke ikaslea bertara joango dela.

Ikaste kontratua edo Learning Agreement dokumentua sinatuko da. Dokumentu horretan, kanpoan egin behar diren ikastaro, ikasgai edo moduluak agertuko dira. Ezinbestekoa da ikaste kontratuak edo Learning Agreementak zehazten dituen ikasgaiak egoki jasota egotea.

Ikaste kontratuko ikasgaiak edo moduluak aldatu beharra gerta daiteke atzerrian, ikasi beharreko ikasgaien irakaskuntzarekin erlazionatutako ustekabekoen ondorioz. Kasu horretan, beti nazioarteko koordinatzailearekin harremanetan jarri beharko du ikasleak, aldaketaren oniritzia jasotzeko.

### 1.2.5. Egonaldiaren aurreko beste dokumentu batzuk (Erasmus+)

Erasmus+ programaren baitan doazen ikasleek, Erasmus+ hitzarmena eta ikaslearen adierazpen arduratsua sinatu beharko dute. Horrez gain, dagokion OLS hizkuntza froga egin beharko dute. Honetarako posta elektronikoko bat jasoko du ikasleak Mobility Tool plataformaren bidez. Nazioarteko taldeak jakinaraziko dio ikasleari prozesu honen hasiera data. Ikasleak mezuan jasotzen den prozesua ezarritako epeetan burutu beharko du.

Erasmus+ programaren baitan bekaren ordainketa kudeatu ahal izateko nazioarteko taldeetik adieraziko diren gainerako dokumentuak (osasun txartelak, bidaia egiaztatze dagokion agiria etb..) ezarritako epe eta moduan aurkeztu beharko ditu.

HUHEZIK beharrezko aseguruak kudeatuko ditu ikaslearen izenean eta ikasleak dagokion ordainketaren kargua jasoko du. (Ikus eranskinak)

### **1.2.6. Egonaldiaren aurreko beste dokumentu batzuk (SICUE, Latinoamerica eta Mundua)**

Kasu hauetan, ikasleek ikasketa akordioa sinatu beharko dute eta bertan, kanpoan egin behar diren ikastaro, ikasgai edo moduluak agertuko dira. Ikasketa akordioko ikasgaiak edo moduluak aldatu beharra gerta daiteke kanpoan, ikasi beharreko ikasgaien irakaskuntzarekin erlazionatutako ustekabekoen ondorioz. Kasu horretan, beti nazioarteko koordinatzailearekin harremanetan jarri beharko du ikasleak, aldaketaren oniritzia jasotzeko.

HUHEZIK beharrezko aseguruak kudeatuko ditu ikaslearen izenean eta ikasleak dagokion ordainketaren kargua jasoko du. (Ikus eranskinak)

Europear Batasunetik kanpoko herrialde batzuetan BISA kudeatu beharko du ikasleak. Ikasleari dagokio BISAREN tramitazio osoa egitea. Kasu hauetan BISA agiria egonaldi hasieran Mudelen igo beharko du.

## **1.3. MATRIKULAZIOA HUHEZIK**

Ikaslea uneoro izango da juridikoki Mondragon Unibertsitateko ikaslea, ikasketa-truke egoeran, eta Mondragon Unibertsitatean ohiko matrikula tasak ordaindu beharko ditu.

Ikasleak HUHEZIKO matrikula prozedura jarraituko du.

## **1.4. KREDITU KONBALIDAZIOA**

Egonaldian zehar, ebaluazio irizpideak kanpoko unibertsitateak ezarriko ditu.

Egonaldi amaieran, kanpoko unibertsitateak noten ziurtagiria emango dio ikasleari: Transcript of Records (TOR). Ikaslearen ardura da dokumentu hori dagokion eran eta ezarritako epean jasoko duela ziurtatzea. Noten dokumentua Mudle-ra igo beharko du ikasleak.

Konbalidatuko den gehieneko kreditu kopurua 1.4.1, 1.4.2 eta 1.4.3 puntuetan zehazten diren taulen arabera izango da.

HUHEZIK konbalidazio globala egiten du gainditutako ECTS-en artean; hau da, kanpoko unibertsitatean lortutako nota guztien batez bestekoa egingo da.

Gainditu gabeko ECTSak baleude eta hauek atzerrian gainditzeko aukerarik ez balego, HUHEZIK gainditu beharko ditu ikasleak. Kasuan kasu gradu ko koordinatzaileek adieraziko duten eran.

Kanpoko unibertsitateak Transcript of Records (TOR) dokumentuan adierazitako kalifikazio sistema Espainiako unibertsitate kalifikazio sistemara bihurtuko da. Horretarako, Espainiako Hezkuntza Ministerioak (MEFP) jasotzen dituen taulak hartuko ditugu erreferentzia gisa.

[Equivalencia de notas medias de estudios universitarios realizados en centros extranjeros | Ministerio de Educación y Formación Profesional](#)

Approved/passed edo Fail adierazpenekin jasotzen ditugun TORak horrela kalifikatuko ditu HUHEZIK: Fail kalifikazioa 4 kalifikazioarekin adieraziko da eta Passed/Approved kalifikazioa 7,5 kalifikazioa itzuliko dugu.

Egonaldian gainditzen ez diren kredituak HUHEZIn gainditu beharko ditu ikasleak. Kasuan kasu graduako koordinatzaileek adieraziko duten eran.

Itzultzean, HUEHZIK erraztu egingo du eskola dinamiketan murgiltzea, eta ikasleak ere ahalegin bera egin beharko du.

4, mailan ikasketa egonaldia bigarren seihilekoan kanpoan egin duen ikasleak ez du nota ofizialik izango GBL aurkezpena onartzeko momentuan. Kasu honetan HUHEZIK GBLaren aurkezpena ahalbidetuko du. Kanpo unibertsitateko notak aurkeztean, ikasleak araudi akademikoak jasotzen duen baldintza beteko ez balu, ECTS guztiak gainditu gabe izango balitu, GBLan jaso den nota indargabetuta geldituko da.

#### 1.4.1. Konbalidazioak: Hezkuntza graduak

3. MAILA		
1. seihilekoa		
Haur Hezkuntza		
MODULUA	MOTA	ECTS KOPURUA
Esperimentazioa ingurune natural eta sozialetan		8
Komunikazioaren eta adierazpenaren garapenerako inguramendu hezitzaileak		8
Practicum III		8
Lehen Hezkuntza		
MODULUA	MOTA	ECTS KOPURUA
Pentsamendu kritikoaren garapena LHn		8
Esku-hartzea eleaniztasunaren garapenerako		8
Practicum III		8

4. MAILA		
1. seihilekoa		
Haur Hezkuntza		
MODULUA	MOTA	ECTS KOPURUA
Hezkuntza berrikuntzarako tresna eta metodologiak		12
Disziplinartekotasunetik antisiziplinetara		8
Lehen Hezkuntza		
MODULUA	MOTA	ECTS KOPURUA
Hezkuntza berrikuntzarako tresna eta metodologiak		12
Disziplinartekotasunetik antisiziplinetara		8

<b>2. seihiakoa</b>		
<b>Haur Hezkuntza</b>		
MODULUA	MOTA	ECTS KOPURUA2.
Berrikuntzan eragile ikerlari		14
Practicum V		16
<b>Lehen Hezkuntza</b>		
MODULUA	MOTA	ECTS KOPURUA
Berrikuntzan eragile ikerlari		14
Practicum V		16

*\*Aldaketak egon daitezke*

#### 1.4.2 Konbalidazioak: Ikus Entzunezko Komunikazioa gradua

<b>3. MAILA</b>		
<b>1. seihiakoa</b>		
<b>Ikus entzunezko sormena ibilbidea</b>		
MODULUA	MOTA	ECTS KOPURUA
Sormen idazketa		6
Mundu garaikidearen oinarriak eta errepresentazioa		6
Ikus-entzunezko sormen interaktiboa		9
<b>Komunikazio digitala ibilbidea</b>		
MODULUA	MOTA	ECTS KOPURUA
Mundu garaikidearen oinarriak eta errepresentazioa		6
Komunikazio digitalaren estrategia eta kudeaketa		15
<b>2. seihiakoa</b>		
<b>Ikus entzunezko sormena ibilbidea</b>		
MODULUA	MOTA	ECTS KOPURUA
Sormen idazketa		6
Fikzioa eta dokumental garaikidea sortzea		15
Ikus-entzunezkoen sustapena eta banaketa		6
<b>Komunikazio digitala ibilbidea</b>		
MODULUA	MOTA	ECTS KOPURUA
Sormen idazketa		6
Marketin digitala eta publizitate-errealizazioa		9



Ikus-entzunezkoen sustapena eta banaketa		6
--	--	---

*\*Aldaketak egon daitezke*

### 1.4.3 Konbalidazioak: Ikus Entzunezko Komunikazioa gradua

4. MAILA		
1. sei hilekoa		
Ikus entzunezko sormena ibilbidea		
MODULUA	MOTA	ECTS KOPURUA
Etorkizun joerak eta erronkak		6
Garapen profesionalak eta komunikazio enpresen eraketa		6
Formatu eta eduki berriak sortzea		18
Komunikazio digitala ibilbidea		
MODULUA	MOTA	ECTS KOPURUA
Etorkizun joerak eta erronkak		6
Garapen profesionalak eta komunikazio enpresen eraketa		6
Kultur ekitaldiak antolatu eta ekoiztea		18

### 1.4.4 Konbalidazioak: Humanitate Digital Globalak gradua

3. MAILA		
MODULUA	MOTA	ECTS KOPURUA
Lidergoa eta komunikazioa	D	6
Bizitza ikasleku – Liferplace learning	D	6
Esku-hartze komunitarioa	D	6

*\*Aldaketak egon daitezke*

## 1.5 NAZIOARTEKO ZIGILUA

UNIBASQ-ek (Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziak) HUHEZI Fakultateko Lehen Hezkuntza eta Haur Hezkuntza Graduetako Atzerriko Hizkuntzako aipamenari Nazioarteko Zigilua aitortu dio.

Nazioarteko Zigilu hau Ebazpenean ezarritako baldintzak betetzen dituen ikasleari aitortuko zaio eta bere espediente akademiko pertsonalean eta Tituluaren Gehigarri Europearrean jasoko da.

Hauek dira Nazioarteko Zigilua aitortzeko baldintzak:

- Lehen Hezkuntza edo Haur Hezkuntzako Atzerriko Hizkuntzako aipameneko ikaslea izatea.
- Gutxienez dagokion Graduko 60 ECTS ingeleseko hizkuntzan burutu izana, GBLa barne.
- Nazioarteko Mugikortasun programa batean 30 ECTS gutxienez gaindituta izatea.

## 1.6 OSTATUA

Ikaslearen ardura da ostatuaren eskaera egitea helburuko unibertsitatearen laguntza eta baliabideak (datu-baseak) erabiliz.

Normalean, HUHEZIK aukeratutako destinoetan ostatua unibertsitateen egoitzetan izaten da, eta ostatu-eskaera ikasturteko eskaera orokorrarekin batera egiten da.

Horrez gain, beste ostatu mota batzuk bilatzeko lagungarria izan daiteke [Erasmusplay](#) web orria.

## 1.7 OHARRAK

Mugikortasun egonaldiak (Erasmus+, SICUE, Latinoamerika, Mundua) ez dira bateragarriak practicum mugikortasun programekin (Erasmus +, Practicum Mundua, Estatu mailan practicum). Ikasleak ezindu du hautatu ikasturte berean mugikortasun programak eskaintzen duen programa bat baino gehiago. Hau da, ezingo ditu bi programa hautatu ikasturte berean

Nazioarteko programa bat hautatzen denean ezin da beste programa batera aldaketarik egin. Bat edo beste hautatu beharko ditu ikasleak.

## 2. PRACTICUM EGONALDIK: ERASMUS+, ESTATU ESPAINIARRA, LATINOAMERIKA ETA MUNDUA

### 2.1. AUKERATUAK IZATEKO BETE BEHARREKO BALDINTZAK

**Hizkuntza ofiziala edo gehiengoduna ingelesez den destinoetan, esleitutako erakundeak eskatzen duen ingeles maila egiaztatu:**

- B2 maila, *Cambridge First Certificate*, *IELTS 5.0* edo *TOEFL 500* maila erakutsi behar da. Bereziki kontuan izango dira azken bi urteetan eskuratutako agiriak.
- Ikasleak horrelako ziurtagiririk ez badu, HUHEZIn hizkuntza azterketa egiteko aukera izango du, maila hori duela egiaztatzeko.

Europako beste hizkuntzaren batean B2 maila izanez gero, jarri mesedez harremanetan nazioarteko arduradunarekin.

**Espediente akademikoa:**

- Practicum egonaldia EAetik kanpo egin ahal izateko modulu bakarra izan daiteke gainditu gabe, eta ezingo da izan practicuma barne hartzen duen modulu bat. Hau da, aurretiko practicumen moduluak gaindituta izan behar dira, eta modulu bakarra izan gainditu gabe.
- Nahiz eta esleipen momentuan baldintza akademikoak bete, ikasturtean zehar graduko koordinaziotik ikasleak mugikortasun programan parte hartzeko baldintza akademiko

guztiak betetzen ez dituela ondorioztatzen badu, araudi akademikoaren arabera, mugikortasunetik kanpo geldituko da.

- Itxaron zerrendan baldintza akademikoak betetzen dituen ikaslerik balego, honi eskainiko zaio libre geratu den tokia.

SEASKAko ikastolen sarean lehenengo egonaldian praktikak egiten badituzu, euskara maila egiaztatu beharko duzu Erasmus+ Practicum beka lortu nahi baduzu Euskarako B2 agiria eskatuko zaizu, edota EGA ziurtagiria. B2 agiririk ez baduzu, aurreko ikasketak egin dituzun ikastetxe/erakundeak erreztuko dizu.

Oharra: hautatuak izateko orduan, lehentasuna izango dute dagoeneko atzerrian egonaldiak egin ez duten ikasleek. Gure asmoa da ahalik eta ikasle gehienak izatea atzerrian egonaldi bat egiteko aukera.

## 2.2. PROZEDURA

### 2.2.1. Aurkezpenak

Aurkezpenak egingo dira HUHEZIn. Aurkezpenetan, mugikortasun programan parte hartzeko prozedura azalduko da, eta dokumentazio eta beka aukeren berri emango da. Informazio guztia eta eskaera orria MUdle-n daude eskuragarri.

Ikasleak eskaera orria eta hizkuntza gaitasun agiria MUdle plataformara igo behar ditu. Gustukoaren diren aukeren arabera ordenatu behar da destinoen zerrenda, eta kontuan izan ikasturteko deialdi bakarra egoten dela. Behar duenak, hizkuntza probak egingo ditu Fakultatean bertan.

### 2.2.2. Destinoen esleipena

Egonaldiko destinoen esleipena egiteko ondorengo prozesua jarraituko da:

1. Eskaera guztiak aztertu ondoren, HUHEZIKo Nazioarteko Batzordeak EAetik kanpo egonaldia egingo duten ikasleak aukeratuko ditu, irizpide hauek kontuan izanda:
  - Espediente akademikoa.
  - Hizkuntza maila egiaztatzea.
2. Esleipenak Mudle-n argitaratuko dira dagokion epean.
3. Lehenengo behin behineko esleipenak argitaratuko dira Mudle-n ikasleen eskaera eta lekuen eskaintza kontutan hartuta. Ikasleek zuzenketak eskatzeko aukera izango dute. Behin HUHEZIKo eskaera guztiak aztertzen dituen, behin betiko esleipenak argitaratuko ditu.
4. Behin betiko esleipen hori onartu egin beharko du ikasleak, Mudle-en aktibatuko zaion atalean.

Oharra: azken hitza atzerriko eskolak izango du. Agian eskolak unerren batean eskatuko dizu elkarrizketa bat izatea haiekin Skype edo meet bidez.

### 2.2.3. Hitzarmena

Hitzarmena edo Learning Agreement dokumentua sinatuko da. Dokumentu honen kudeaketa HUHEZIKo nazioarteko taldeak egingo du. Erasmus+ programan parte hartuko duten ikasleen kasuan dokumentu hau ikasleak ere sinatu beharko duenez, dokumentua ikasleari emango zaio.

#### **2.2.4. Egonaldiaren aurreko beste dokumentu batzuk (Erasmus+)**

Erasmus+ programaren baitan doazen ikasleek, Erasmus+ hitzarmena eta ikaslearen adierazpen arduratsua sinatu beharko dute. Baita dagokion OLS, hizkuntza froga egin. Honetarako posta elektronikoko bat jasoko du ikasleak Mobility Tool plataformaren bidez. Nazioarteko taldeak jakinaraziko dio ikasleari prozesu honen hasiera data. Ikasleak mezuan jasotzen den prozesua ezarritako epeetan burutu beharko du.

Erasmus+ programaren baitan bekaren ordainketa kudeatu ahal izateko nazioarteko taldeak adieraziko diren gainerako dokumentuak (osasun txartelak, bidaia egiaztatze dagokion agiria etab.) ezarritako epe eta moduan aurkeztu beharko ditu.

HUHEZIK beharrezko aseguruak kudeatuko ditu ikaslearen izenean eta ikasleak dagokion ordainketaren kargua jasoko du. (Ikus eranskinak)

#### **2.2.5. Egonaldiaren aurreko beste dokumentu batzuk (Estatu Espainiarra, Latinoamerika eta Mundua)**

Kasu hauetan, praktika hitzarmena HUHEZIK eta kanpoko erakundeak sinatuko dute.

HUHEZIK beharrezko aseguruak kudeatuko ditu ikaslearen izenean eta ikasleak dagokion ordainketaren %50eko kargua jasoko du. (Ikus eranskinak)

Europar Batasunetik kanpoko herrialde batzuetan BISA kudeatu beharko du ikasleak. Kasu hauetan BISA agiria egonaldi hasieran Mudelen igo beharko du.

### **2.3. MATRIKULAZIOA HUHEZIn**

Ikaslea une oro izango da juridikoki Mondragon Unibertsitateko ikaslea, truke egoeran eta Mondragon Unibertsitatean ohiko matrikula tasak ordaindu beharko ditu.

Ikasleak HUHEZIKo matrikula prozedura jarraituko du.

### **2.4. OSTATUA**

Ikaslearen ardura da ostatuaren eskaera egitea helburuko unibertsitatearen laguntza eta baliabideak (datu-baseak) erabiliz.

Normalean, HUHEZIK aukeratutako destinoetan ostatua unibertsitateen egoitzetan izaten da, eta ostatu-eskaera ikasturteko eskaera orokorrarekin batera egiten da.

Horrez gain, beste ostatu mota batzuk bilatzeko lagungarria izan daiteke [Erasmusplay](https://www.erasmusplay.com) web orria.

### **2.5. OHARRAK**

Mugikortasun egonaldiak (Erasmus+, SICUE, Latinoamerika, Mundua) ez dira bateragarriak practicum mugikortasun programekin (Erasmus +, Practicum Mundua, Estatu mailan practicum). Ikasturte berdinean ikasleak ezin izango du hautatu nazioarteko egonaldi eta practicum mugikortasun programara.

Nazioarteko programa bat hautatzen denean ezin da beste programa batera aldaketarik egin. Bat edo beste hautatu beharko ditu ikasleak.

### 3. AMAIERAN AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Egonaldia bukatu eta gehienez 25 egunera jarraian adierazitako dokumentuak aurkeztu beharko ditu ikasleak Mudle plataforman, nazioarteko mugikortasunaren atalean.

#### 3.1. ERASMUS+ STUDIES EGONALDIA

- Transcript of records (notak). Kasu batzuetan, ikasleei ematen dizkiete, eta, beste batzuetan, plataforma batean jartzen dituzte ikaslearen eskura. Ikaslearen ardura da hori lotzea eta bideratzea.
- Learning Agreement. Hiru sinadurarekin (ikaslearena, Mondragon Unibertsitatearena eta atzerriko unibertsitatearena). Dokumentu hau online beteko da egonaldia hasi baino lehen eta amaieran entregatu beharko da. Nazioarteko taldeak azalduko duen prozesuaren arabera bete beharko du ikasleak (eskuliburuak Mudle plataforman daude eskuragarri).
- Certificate of Attendance edo Certificate End of Studies gauza bera dira. Ziurtatu bertan jasotzen diren datak, Erasmus hitzarmenak jasotzen dituenak direla.
- Balorazioa. Mudle plataforman beteko da. Balorazio honen helburua, datorren urteko ikasleekin partekatu eta guk destinoaren egokitasuna baloratzeko erabiliko da.
- Erasmus+ programaren baitan bekaren ordainketa kudeatu ahal izateko nazioarteko taldetik adieraziko diren gainontzeko dokumentuak (bidaia egiaztatzeko dagokion agiria, eta abar).

#### 3.2. ERASMUS+ PRACTICUM EGONALDIA

- Learning Agreement. Hiru sinadurarekin (ikaslearena, Mondragon Unibertsitatearena eta atzerriko erakundearena). Dokumentu hau egonaldia hasi baino lehen beteko da eta amaieran entregatu beharko da.
- Certificate of Attendance edo Certificate End of Traineeship gauza bera dira. Ziurtatu bertan jasotzen diren datak, Erasmus hitzarmenak jasotzen dituenak direla.
- Balorazioa. Mudle plataforman beteko da. Balorazio honen helburua, datorren urteko ikasleekin partekatu eta guk destinoaren egokitasuna baloratzeko erabiliko da.
- Erasmus+ programaren baitan bekaren ordainketa kudeatu ahal izateko nazioarteko taldetik adieraziko diren gainontzeko dokumentuak (bidaia egiaztatzeko dagokion agiria eta abar).

#### 3.3. SICUE EGONALDIA

- Ikasketa akordioa edo Acuerdo académico SICUE.
- Notak. Kasu batzuetan, ikasleei ematen dizkiete, eta, beste batzuetan, plataforma batean jartzen dituzte ikaslearen eskura. Ikaslearen ardura da hori lotzea eta bideratzea.

- Balorazioa. Mudle plataforman beteko da. Balorazio honen helburua, datorren urteko ikasleekin partekatu eta guk destinoaren egokitasuna baloraretzo erabiliko da.

### **3.4. ESTATUAN PRACTICUM EGONALDIA**

- Balorazioa. Mudle plataforman beteko da. Balorazio honen helburua, datorren urteko ikasleekin partekatu eta guk destinoaren egokitasuna baloraretzo erabiliko da.

### **3.5. LATINOAMERIKA ETA MUNDUA STUDIES EGONALDIA**

- Certificate de Estancia edo certificate of Attendance gauza bera dira. Ziurtatu bertan jasotzen diren datak hitzarmenarekin bat datozela.
- Notak. Kasu batzuetan, ikasleei ematen dizkiete, eta, beste batzuetan, plataforma batean jartzen dituzte ikaslearen eskura. Ikaslearen ardura da hori lotzea eta bideratzea.
- Balorazioa. Mudle plataforman beteko da. Balorazio honen helburua, datorren urteko ikasleekin partekatu eta guk destinoaren egokitasuna baloraretzo erabiliko da.

### **3.6. LATINOAMERIKA ETA MUNDUA PRACTICUM EGONALDIA**

- Certificado de Estancia edo certificate of Attendance gauza bera dira. Ziurtatu bertan jasotzen diren datak hitzarmenarekin bat datozela.
- Balorazioa. Mudle plataforman beteko da. Balorazio honen helburua, datorren urteko ikasleekin partekatu eta guk destinoaren egokitasuna baloraretzo erabiliko da.

## **4. ADMINISTRATIBOKI BETE BEHARREKO BESTE BALDINTZA BATZUK**

### **4.1. ALDAKETAK**

Behin herrialdea esleituta, ez da onartuko inongo aldaketarik. Salbuespen egoeretan bakarrik onartuko dira aldaketak eta, kasu horietan, dagokion idatzizko eskaera Gradu Batzordeari zuzenduko zaio, [practicum.huhezi@mondragon.edu](mailto:practicum.huhezi@mondragon.edu) edo [international.huhezi@mondragon.edu](mailto:international.huhezi@mondragon.edu) posta elektronikoen bidez.

### **4.2. GARRAIOAREN DEUSEZTAPEN ASEGURUA**

Gomendatzen da garraioa hartzerakoan deuseztapen aseguruia ere kontratatzea (indargabetze aseguruia).

### **4.3. COVID 19AREN ONDORIOZ EGIN BEHARREKO FROGA MEDIKOAK**

COVID 19aren ondorioz baliteke helmugako erakunde edo herrialde batzuk PCR, antígeno froga edo bestelakoak eskatzea. Froga hauek sortutako gastua eta helmugan eskatu ditzaketen baldintzak betetzearen erantzukizuna ikaslearena izango da.

#### 4.4. EZOHIKO EGOERAK

Ezohiko egoerak Nazioarteko Batzordeak kudeatuko ditu dagokion idatzizko eskaera jaso ondoren. Idatzia [international.huhezi@mondragon.edu](mailto:international.huhezi@mondragon.edu) posta elektronikora bideratu beharko du ikasleak.

Oharra: Ikasleak bere gain hartutako erabaki eta gastuetan unibertsitateak ez du erantzukizunik izango.

#### 4.5. OSTATUA

Ikaslea arduratuko da ostatua edo logela bilatzeaz. Nazioarteko taldea eta tokian tokiko ikastetxea/erakundea bidelagun izango ditu ikasleak.

### 5. ASEGURUAK

#### 5.1. EUROPAR BATASUNA ETA SUIZTA (Turkia eta Erresuma Batua kanpo daude)

Europar Batasunean mediku estaldura edukitzeko, Europako Osasun Txartela egin behar da Gizarte Segurantzaren (CAISS).

Atzerrian egonda medikuarengana joan behar izanez gero, tokian tokiko osasun zerbitzuek laguntza eskaintzen dute. Arazoren bat izanez gero, telefono hauetara deitu behar da: 0034 901166565 edo 0034 944284500. Telefono horietan argitzen dute zer den egin beharrekoa.

Horretaz aparte, Mondragon Unibertsitateak Erasmus+ egonaldietara ateratzen diren ikasle guztiek bi aseguru hauek ere egin beharko dituzte: istripu aseguru eta bidaia aseguru.

Aseguruak Unibertsitateak kudeatzen ditu, eta ikasleari dagokion ordainketaren zenbatekoa helarazitako kontutik kobratuko zaio.

Aseguruaren inguruko zalantzak argitzeko, deitu Mondragon Unibertsitatearen telefono honetara: + 34 674061983 edo idatzi posta helbide honetara: [aigartua@mondragon.edu](mailto:aigartua@mondragon.edu)

Programatutako datak baino beranduago etorri behar izanez gero, derrigorrezkoa da [aigartua@mondragon.edu](mailto:aigartua@mondragon.edu) helbidera dagokion jakinarazpena bidaltzea.

(Ikus eranskinak)

#### 5.2. TURKIA, ERRESUMA BATUA, LATINOAMERIKA, EEBB ETA MUNDUA

Europatik kanpoko egonaldiak aseguru propioa dute. Fakultateak kudeatzen du eta derrigorrezkoa da. Osasun, istripu eta bidaia aseguru da.

Aseguruaren inguruko zalantzak argitzeko, deitu telefono honetara: + 34 600018303 edo idatzi posta helbide honetara: [pertsonala@mondragon.edu](mailto:pertsonala@mondragon.edu)

Ikasleari dagokion ordainketaren zenbatekoa helarazitako kontutik kobratuko zaio.

**Destinu jakin batzuetan baliteke bertan aseguru poliza bat kontratatu beharra. Kasu hauetan, destinoko poliza aztertuko da eta Mondragon Unibertsitateak onartuko balu, ez litzateke Mondragon Unibertsitateak eskaintzen duen poliza kontratatu beharko. Ikasleak destinoko**

**poliza Mudle-n atxiki beharko du. Egingo ez balu, Mondragon Unibertsitateko poliza kudeatuko da.**

(Ikus eranskinak)

## 6. BISA

Europar Batasunetik kanpoko zenbait herrialdetan, kasu askotan, bisa lortzea derrigorrezkoa da, herrialdearen arabera. Herrialde bakoitzean indarrean dagoen araudiari jarraitu eta hura bete beharko da.

Bisa lortzeko ardura ikasleak du eta Nazioarteko taldea bidelagun izango du prozesuan zehar sor daitezkeen hainbat gaitan (behar diren ziurtagiriak ematea, eta abar) laguntza eskaintzeko.

Herrialde batzuetan ez da egoten zailtasun handirik bisa eskuratzeko; beste herrialde batzuetan, ordea, bisa lortu ahal izateko zenbait hilabete iragan behar dira (hiru bat), eta ordaindu beharra dago.

Erakunde edo ikasleen behin betiko esleipena argitaratu eta hitzarmen-onarpen guztiak sinatuta daudenean, lehenbailehen hasi beharko da ikaslea bisa eta baimenak eskuratzeko beharrezko diren pausoak ematen.

Dagokion bisa lortzen ez duen ikaslea ezingo da joan egonaldia edo praktikak egitera.

Ezarritako epe eta prozedurei jarraituz, bisak Unibertsitatean entregatu beharko ditu ikasleak, Nazioarteko programak Mudle-n duen zereginaren bidez. Gomendatzen da bisa lortu bitartean hegaldirik ez erostea eta gainontzeko gasturik ez egitea. Hegaldia erostekotan, gomendatzen da deuseztapen aseguru kontratatzea.

Herrialde batzuetan ez da bisarik behar, baina kasu horietan ere beharrezkoa da enbaxadaren edo kontsulatuaren baimena idatziz jasotzea (bisa edo baimen berezirik behar ez dela adierazten duen erantzun ofizial idatzia). Enbaxadara edo kontsulatura idazten den mezuan, honako datu hauek txertatu behar dira: ikaslearen izen-abizenak, NAN eta pasaporte zenbakia, praktikak egitera zoaztela aste horietan, tokian tokiko erakundearen izena eta helbidea, ordainsaririk gabeko praktikak direla, aseguru eta hitzarmen estaldurarekin bidaiatzen duzuela herrialdera.

Jarraian jasotzen dira edozein herrialdetara bidaiatzeko gomendioak.

Bidaiatzeko gomendioak: [Kanpo harremanetarako Ministerioa](#)

Erresuma Batura eta Turkiara bidaiatu ahal izateko kontutan hartu beharreko gomendio eta oharra aurkituko dituzu ondoren:

Oharra: Erresuma Batuak 6 hilabete baino gutxiagoko egonaldietan ez du BISARik eskatzen baina esteka honen bidez jasotzen diren baldintzak bete beharko dira sartu ahal izateko.

Oharra: Turkiak 90 egun baino gutxiagoko egonaldietan ez du BISARik eskatzen baina enbaxada edo kontsulatuan jasotzen diren baldintzak bete beharko dira sartu ahal izateko.



Taula honetan agertzen dira herrialde batzuen enbaxada edo kontsulatuak webguneak:

HERRIALDEA	ENBAXADAK, KONTSULATUAK
AEB	<a href="https://es.usembassy.gov/es/">https://es.usembassy.gov/es/</a>
ARGENTINA	<a href="https://eespa.cancilleria.gob.ar/">https://eespa.cancilleria.gob.ar/</a>
BOLIVIA	<a href="https://www.consuladodebolivia.es/">https://www.consuladodebolivia.es/</a>
ERRESUMA BATUA	<a href="https://www.gov.uk/world/organisations/british-embassy-madrid.es">https://www.gov.uk/world/organisations/british-embassy-madrid.es</a>
BRASIL	<a href="http://madri.itamaraty.gov.br/es-es/">http://madri.itamaraty.gov.br/es-es/</a>
EKUADOR	<a href="https://www.cancilleria.gob.ec/espana/">https://www.cancilleria.gob.ec/espana/</a>
HONDURAS	<a href="https://www.consuladohondurasmadrid.es/embajada-en-espana/">https://www.consuladohondurasmadrid.es/embajada-en-espana/</a>
INDIA	<a href="https://www.eoimadrid.gov.in/">https://www.eoimadrid.gov.in/</a>
KANADA	<a href="https://www.international.gc.ca/country-pays/spain-espagne/index.aspx?lang=eng">https://www.international.gc.ca/country-pays/spain-espagne/index.aspx?lang=eng</a>
KOLONBIA	<a href="https://espana.embajada.gov.co/">https://espana.embajada.gov.co/</a>
MEXIKO	<a href="https://embamex.sre.gob.mx/espana/index.php">https://embamex.sre.gob.mx/espana/index.php</a>
PERU	<a href="http://www.consulado.pe/paginas/Inicio.aspx">http://www.consulado.pe/paginas/Inicio.aspx</a>
TAIWAN	<a href="https://www.roc-taiwan.org/es/index.html">https://www.roc-taiwan.org/es/index.html</a>
TURKIA	<a href="http://madrid.be.mfa.gov.tr/Mission">http://madrid.be.mfa.gov.tr/Mission</a>
TXILE	<a href="https://chile.gob.cl/espana/">https://chile.gob.cl/espana/</a>
URUGUAY	<a href="https://www.gub.uy/ministerio-relaciones-exteriores/">https://www.gub.uy/ministerio-relaciones-exteriores/</a>

## 7. BEKAK ETA DIRULAGUNTZAK

Ikasketak atzerrian egiteagatik jaso daitezkeen diru laguntzak hiru multzotan banatzen dira: Erasmus+, Eusko Jaurlaritzak ematen dituen laguntzak eta beste batzuk. Jarraian azaltzen dira bakoitzaren zehaztapenak.

### 7.1. ERASMUS+ BEKA

Europako egonaldietan, Erasmus+ programaren barruan eta Europatik kanpokoko destino jakin batzuetan eskaintzen diren laguntzak jasotzeko ondorengoak izan behar dira kontutan:

Europatik kanpoko destinoen kasuan, atzerriko erakundeak eta Mondragon Unibertsitateak, Erasmus + programaren baitan hitzarmena sinatu beharko dute.

Europatik kanpoko destinoen kasuetan, gehienez Mondragon Unibertsitateko mugikortasun totalaren %20a estalduko du Erasmus + programak.

Ikasleak erabiliko duen garraio bideen arabera, dirulaguntza aldatzen da (ikus Erasmus+ 2022-23 deialdiari dagokion dokumentua).

Erasmus+ programan onartuak dauden ikasle guztientzat beka Mondragon Unibertsitateak kudeatzen du.

Erasmus+ beka jasotzen duten ikasle guztiek bi hizkuntza proba egin behar dituzte (OLS [Online Linguistic Support]), bat egonaldiaren hasieran eta bestea amaieran. Online egin behar izaten dira, eta, horretarako, ikasleak email bat jasoko du Mobility Tool plataformatik. Mobility Tool plataforma Erasmus+ hitzarmena eta ikaslearen adierazpen arduratsua sinatu ondoren aktibatzen da.

Erasmus+ hitzarmena eta ikaslearen adierazpen arduratsua sinatu eta bertan aipatzen den OLS proba egin ondoren, bekaren % 80a hilabeteko epean ordainduko da; bekaren gainontzeko % 20a, berriz, egonaldi bukaeran, OLS proba egin eta dagokion dokumentazio guztia egoki entregatzean. Beka jasotzeko, derrigorrezkoa da OLS proba egitea.

Europear Osasun Txartela egonaldi hasieran igo beharko du ikasleak MUDLE plataformara..

%33ko ezgaitasuna akreditatzen duen ziurtagiria (dagokion kasuan).

Ikasleak prozesuan eskatutako dokumentazio guztia aurkeztu beharko du, garaiz eta zuzen.

Erasmus+ bekaren ordainketa Unibertsitateari helarazitako kontu korrontean jasoko du ikasleak.

Ikasleak prozesua eta/edo momentu bakoitzean entregatu beharreko dokumentazioa egoki ez entregatzeak ez du bermatuko eskaeraren kudeaketa.

Taula honetan agertzen dira SEPIEk 2022-2023 ikasturterako ematen dituen dirulaguntza kopuruak (behin-betikoak):

	HERRIALDEAK	STUDIES EGONALDIA	PRACTICUM EGONALDIA
1. TALDEA	Danimarka, Finlandia, Irlanda, Islandia, Liechtenstein, Luxemburgo, Norbegia, Suedia	310€ / *560€ hileko	460€ / *710€ hileko
2. TALDEA	Alemania, Austria, Belgika, Txipre, España, Frantzia, Grezia, Italia, Malta, Herbeherak, Portugal	260€ / *510€ hileko	410€ / *660€ hileko
3. TALDEA	Bulgaria, Kroazia, Eslovakia, Eslovenia, Estonia, Hungaria, Letonia, Lituania, Polonia, Txekiar Errepublika, Mazedoniako Errepublika, Errumania, Serbia, Turkia	210€ / *460€ hileko	360€ / *610€ hileko
Nazioarteko mugikortasuna	Ikus Erasmus+ 2022-23 deialdiari dagokion dokumentazioan. I Eranskina	700€ /*950 hileko	700€ /*950 hileko

Oharra: \* duten diru kopuruak, Beka ofizialen onuradun eta %33 edo gehiagoko ezgaitasun akreditatua duten ikasleek jasoko duten dirulaguntza jasotzen du.

Ondorengo estekan ikus daiteke SEPIEri buruz informazio guztia: <http://sepie.es/educacion-superior/convocatoria.html>

## 7.2. EUSKO JAURLARITZAKO MUGIKORTASUN BEKA

Bekaren onuradun izateko, ikasleak Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatuta egon behar du (Eusko Jaurlaritzak argitaratzen duen araudian ezarritako epeen barruan).

Erasmus+ programaz kanpoko nazioarteko egonaldietan, gehienez 330 € finantzatuko ditu Eusko Jaurlaritzak, eta, Erasmus+ programetako egonaldietan, 330 €-ra heltzen ez diren herrialdeen kasuan onartuko du finantzaketa.

Beken deialdia eta informazioa Eusko Jaurlaritzaren webgune honetan dago publikatuta.

Eusko Jaurlaritzak nazioarteko egonaldietara bideratzen duen diru kopurua egonaldi guztien % 100 finantzatzeko nahikoa ez denean, Erasmus+ programetako egonaldiak lehenesten ditu.

Erasmus+ programetatik kanpo egiten diren egonaldietan, Jaurlaritzak ez du % 100eko finantzaketa bermatuko.

Beka Unibertsitateak kudeatzen du, ikasleak eskaera aurkezten duenean ezarritako prozesu eta epeetan.

Jakinarazpena nazioarteko taldeak helarazten du posta elektronikoko bidez, eta bertan emango zaio ikasleari jarraitu beharreko prozesu eta epeen berri. Ikaslearen erantzukizuna da ezarritako irizpideak betetzea.

Egonaldi bakoitzaren bukaeran, ikasleak eskatu zaion dokumentazioa entregatu beharko du, ezarritako prozesu eta epeak errespetatuz.

Eusko Jaurlaritzak azaroan argitaratu ohi du deialdia, eta ordainketak irailaren bukaeran gauzatzen dira, ikasturteko mugikortasun programari itxiera ematen zaionean.

## 7.3. BESTELAKO DIRULAGUNTZAK

- Kutxabankek bere bezero diren ikasleentzat dirulaguntza banatzen du seihileko bakoitzean, Europako edo Erasmus+ programako egonaldietan bakarrik. Hori kudeatzea ikaslearen ardura da, eta ekainean irekitzen da deialdia. Kutxabankek bere bezero diren ikasleentzat.
- Nafarroako Gobernuak, nafarrentzat soilik nazioarteko mugikortasunerako laguntza osagarriak eskaintzen ditu. Beka kudeatzea ikaslearen ardura da.
- 2022-2023 ikasturtean Santander Erasmus Bekak eskaini dira: <https://app.becas-santander.com/es/program/becas-santander-estudios-erasmus-2022-2023>
- Suiza: Suitzako unibertsitateetan mugikortasun egonaldi bat egiten duten ikasleentzako. Suitzako gobernuak emandako beka (2022-23 ikasturtean: 2.200 SFr).

## 8. ERREFERENTZIAZKO PERTSONAK

Bidaian zehar zaudela arazoren bat badago, koordinatzailearekin jarri beharko du ikasleak kontaktuan. Tutorearen lana izango da alderdi akademikoaren jarraipena egitea. Bestelako gaietarako, koordinatzailea izango da erreferentziazko pertsona.

[palvarez@mondragon.edu](mailto:palvarez@mondragon.edu)

[sfallon@mondragon.edu](mailto:sfallon@mondragon.edu)

[practicum.huhezi@mondragon.edu](mailto:practicum.huhezi@mondragon.edu)

[international.huhezi@mondragon.edu](mailto:international.huhezi@mondragon.edu)

## 9. ERANSKINAK

### 9.1. EUROPAKO ASEGURU POLIZAREN EREDUA



**TOMADOR:** MONDRAGON UNIBERTSITATEA, S.COOP.  
CIF. F 20560991 TLF.943.71.21.85  
Loramendi N°4  
20.500 ARRASATE-MONDRAGON

**ASEGURADO:** Según relación facilitada por Tomador de Seguro

---

**SEGURO COLECTIVO DE ACCIDENTES**  
Póliza 1109100008711

---

#### **GARANTÍAS Y CAPITALES POR ASEGURADO**

1. FALLECIMIENTO POR ACCIDENTE (30.000 EURO)
2. INVALIDEZ PERMANENTE POR ACCIDENTE (60.000 EURO)
3. ASISTENCIA SANITARIA POR ACCIDENTE (ILIMITADO)

Ámbito de la cobertura. 24 horas

#### **CLÁUSULAS LIMITATIVAS Y/O EXCLUSIONES**

EXCLUSION DE CONSECUENCIAS DE ACCIDENTES ANTERIORES A LA CONTRATACION: Se conviene que las prestaciones contratadas en la presente póliza no alcanzan a los accidentes ocurridos con anterioridad a la fecha de efecto del contrato o a la fecha de alta de un empleado, aun cuando las consecuencias del accidente persistan, se manifiesten, se reclamen o se determinen durante la vigencia de la póliza.

Por su trascendencia particular, a continuación se mencionan algunas de las exclusiones citadas en las Condiciones Generales

- Accidentes sufridos por el asegurado en situación de enajenación mental, o por estar embriagado o bajo el efecto de drogas tóxicas o estupefacientes
- Los aneurismas, varices, las hernias de cualquier naturaleza y origen y sus agravaciones, así como las distensiones, quebraduras musculares y el lumbago, a no ser que se hayan producido como consecuencia directa de un accidente indemnizable por la póliza.

Para tener derecho a las prestaciones derivadas de esta póliza será imprescindible llamar al teléfono de Laguntel 902 38 08 38 o ponerse en contacto con el Tomador del seguro.

Son de aplicación las condiciones generales de la póliza que prevalecerá en caso de discrepancia.



TOMADOR: MONDRAGON UNIBERTSITATEA, S.COOP.  
CIF. F 20560991 TLF.943.71.21.85  
Loramendi N°4  
20.500 ARRASATE-MONDRAGON

ASEGURADO: Según relación facilitada por Tomador de Seguro

**SEGURO DE ASISTENCIA EN VIAJE**  
**Póliza 06651084000000179**

**COBERTURAS INCLUIDAS**

COBERTURA DE ASISTENCIA A PERSONAS

1. TRASLADO O REPATRIACIÓN SANITARIA, EN CASO DE ENFERMEDAD O ACCIDENTE DEL ASEGURADO DESPLAZADO
2. TRASLADO O REPATRIACIÓN DE LOS ASEGURADOS ACOMPAÑANTES DEL ASEGURADO ENFERMO O ACCIDENTADO - EN CASO ENFERMEDAD/ACCIDENTE ASEGURADO TRASLADADO/REPATRIADO - MAXIMO 6 PERSONAS
3. TRASLADO O REPATRIACIÓN DE LOS ASEGURADOS ACOMPAÑANTES MENORES O DISCAPACITADOS DEL ASEGURADO ENFERMO O ACCIDENTADO - EN CASO ENFERMEDAD/ACCIDENTE ASEGURADO TRASLADADO/REPATRIADO
4. TRASLADO O REPATRIACIÓN DEL ASEGURADO FALLECIDO
5. DESPLAZAMIENTO DE ACOMPAÑANTE DEL ASEGURADO HOSPITALIZADO - POR HOSPITALIZACION DEL ASEGURADO SUPERIOR A 5 DIAS - POR FALLECIMIENTO DEL ASEGURADO
6. TRASLADO O REPATRIACIÓN DE LOS ASEGURADOS ACOMPAÑANTES DEL ASEGURADO FALLECIDO - MAXIMO 14 DIAS
7. ALOJAMIENTO DE ACOMPAÑANTE DEL ASEGURADO HOSPITALIZADO - HASTA 42 EUROS/DIA - MAXIMO 10 DIAS - ENFERMEDAD O ACCIDENTE DEL ASEGURADO - POR FALLECIMIENTO DEL ASEGURADO (LIMITE 420 EUROS)
8. PROLONGACIÓN DE LA ESTANCIA DEL ASEGURADO POR ENFERMEDAD O ACCIDENTE - HASTA 42 EUROS/DIA - MAXIMO 10 DIAS (LIMITE 420 EUROS)
9. RETORNO ANTICIPADO DEL ASEGURADO POR FALLECIMIENTO DE UN FAMILIAR - HASTA SEGUNDO GRADO - POR FALLECIMIENTO
10. RETORNO ANTICIPADO DEL ASEGURADO POR HOSPITALIZACIÓN DE UN FAMILIAR - HASTA SEGUNDO GRADO
11. RETORNO ANTICIPADO POR SINIESTRO GRAVE EN SU RESIDENCIA HABITUAL O LOCALES PROFESIONALES
12. ENVÍO DE MEDICAMENTOS
13. TRANSMISIÓN DE MENSAJES URGENTES
14. INFORMACIÓN GENERAL
15. GESTIÓN Y COORDINACIÓN DE SERVICIOS ASISTENCIALES
16. GESTIÓN DE ENTREGA DE EFECTIVO EN EL EXTRANJERO (LIMITE 1.500 EUROS)
17. INDEMNIZACIÓN POR PÉRDIDA DE CLASES - HASTA 24 EUROS/DIA - MAXIMO 25 DIAS - POR HOSPITALIZACION DEL ASEGURADO SUPERIOR A 5 DIAS (LIMITE 600 EUROS)

COBERTURA DE INDEMNIZACIÓN POR DEMORA

18. DEMORA EN LA SALIDA DEL MEDIO DE TRANSPORTE AÉREO - HASTA 30 EUROS/TRAMO SUPERIOR 6 HORAS (LIMITE 120 EUROS)
19. DEMORA DE VIAJE POR OVER BOOKING EN MEDIO DE TRANSPORTE AÉREO (LIMITE 30 EUROS)

C/ CTR. POZUELO 50 28222 MAJADAHONDA MADRID - ESPAÑA - TF. 902361994 - FAX

NH: 179000821

1 de 2

MOD.MF1005-08/10



Inscrita en el Registro Mercantil de Madrid, Tomo 487, Folio 166, Hoja M-9333, Inscripción 1ª - CIF: A 281 41 935

COBERTURA DE EQUIPAJES

20. INDEMNIZACIÓN POR PÉRDIDA DEFINITIVA, ROBO O DETERIORO EXTERIOR DEL EQUIPAJE FACTURADO EN VUELO - CERTIFICADO DEL TRANSPORTISTA - POR DETERIORO EXTERIOR DEL EQUIPAJE FACTURADO - LIMITE 60 EUR - POR PERDIDA DEFINITIVA O ROBO DEL EQUIPAJE FACTURADO (LIMITE 90 EUROS)
21. INDEMNIZACIÓN POR DEMORA DE EQUIPAJES FACTURADOS EN VUELO - MINIMO 8 HORAS - FACTURAS ORIGINALES Y CERTIFICADO DEL TRANSPORTISTA (LIMITE 90 EUROS)
22. LOCALIZACIÓN Y ENVÍO DE LOS EQUIPAJES Y EFECTOS PERSONALES

COBERTURA DE ACCIDENTES PERSONALES

23. INDEMNIZACIÓN POR FALLECIMIENTO ACCIDENTAL DEL ASEGURADO DESPLAZADO (LIMITE 6.000 EUROS)
24. INDEMNIZACIÓN POR INVALIDEZ PERMANENTE DEL ASEGURADO DESPLAZADO SEGÚN BAREMO (LIMITE 6.000 EUROS)

**Por esta cobertura se garantiza un límite máximo de indemnización en caso de siniestro de 3.000.000 euros**

COBERTURA DE RESPONSABILIDAD CIVIL

25. RESPONSABILIDAD CIVIL PRIVADA (LIMITE 60.000 EUROS)

Para tener derecho a las prestaciones derivadas de esta póliza será imprescindible llamar a los teléfonos siguientes: Desde España 902.361.994, extranjero 34 915.811.823. Este teléfono estará operativo todos los días del año durante las 24 horas.

Son de aplicación las condiciones generales MOD. 520100SGGEN0109, que prevalecerán en caso de discrepancia, estando a su disposición en el contratante de la misma o en MAPFRE FAMILIAR, S.A.

MAPFRE FAMILIAR, S.A.

## 9.2. EUROPATIK KANPOKO ASEGURU POLIZAREN EREDUA

[Contacta con  
nosotros](#)



### Datos de la póliza 651 - 680 PROYECTO/CARTERA



#### Datos de la póliza

Producto: SEGURVIAJE  
Referencia: PROYECTO/CARTERA  
Nº de contrato/póliza: 651 / 680

**Aviso:** No es posible realizar bajas pues el asegurado está en riesgo desde el mismo momento en que se comunica el alta.

#### [Ocultar Ampliar datos](#)

Fecha de Efecto: 01/09/2021  
Fecha de Vencimiento: 01/09/2022  
Modelo de las condiciones generales: [520100SG0119](#)  
Periodicidad de Pago: ANUAL  
Tipo de Renovación: ANUAL

#### Características del servicio

#### [Ocultar Resumen de Coberturas](#)

#### • COBERTURA DE ASISTENCIA A PERSONAS:

- \* TRASLADO O REPATRIACIÓN SANITARIA, EN CASO DE ENFERMEDAD O ACCIDENTE DEL ASEGURADO DESPLAZADO
- \* TRASLADO O REPATRIACIÓN DE LOS ASEGURADOS ACOMPAÑANTES DEL ASEGURADO ENFERMO O ACCIDENTADO - EN CASO ENFERMEDAD/ACCIDENTE ASEGURADO TRASLADADO/REPATRIADO - MAXIMO 6 PERSONAS
- \* TRASLADO O REPATRIACIÓN DE LOS ASEGURADOS ACOMPAÑANTES MENORES O DISCAPACITADOS DEL ASEGURADO ENFERMO O ACCIDENTADO - EN CASO ENFERMEDAD/ACCIDENTE ASEGURADO TRASLADADO/REPATRIADO
- \* ASISTENCIA MÉDICA POR ENFERMEDAD O ACCIDENTE DEL ASEGURADO DESPLAZADO FUERA DE SU PAIS DE RESIDENCIA HABITUAL - FUERA DEL PAIS DE RESIDENCIA HABITUAL DEL ASEGURADO (LIMITE 200000 EUROS.)
- \* Mediante la cobertura de "Asistencia médica por enfermedad o accidente del Asegurado desplazado fuera de su país de residencia habitual" Mapfre se hará cargo de los gastos de asistencia sanitaria: de hospitalización, de las intervenciones quirúrgicas, honorarios médicos, de los gastos de enfermería y de los productos farmacéuticos prescritos por el facultativo que le atienda hasta conseguir la estabilización que permita continuar el viaje o el traslado a su domicilio habitual u hospital próximo a éste. Hasta el límite de 200.000 €.
- \* Los gastos de servicios de odontología de urgencia se limitan hasta 250 €.
- \* TRASLADO O REPATRIACIÓN DEL ASEGURADO FALLECIDO
- \* DESPLAZAMIENTO DE ACOMPAÑANTE DEL ASEGURADO HOSPITALIZADO - POR HOSPITALIZACION DEL ASEGURADO SUPERIOR A 5 DIAS - POR FALLECIMIENTO DEL ASEGURADO
- \* ALOJAMIENTO DE ACOMPAÑANTE DEL ASEGURADO HOSPITALIZADO - HASTA 100 EUROS/DIA - MAXIMO 10 DIAS - ENFERMEDAD O ACCIDENTE DEL ASEGURADO - POR FALLECIMIENTO DEL ASEGURADO (LIMITE 1000 EUROS.)
- \* PROLONGACIÓN DE LA ESTANCIA DEL ASEGURADO POR ENFERMEDAD O ACCIDENTE - HASTA 100 EUROS/DIA - MAXIMO 10 DIAS (LIMITE 1000 EUROS.)
- \* RETORNO ANTICIPADO DEL ASEGURADO POR FALLECIMIENTO DE UN FAMILIAR - HASTA SEGUNDO GRADO - POR FALLECIMIENTO
- \* RETORNO ANTICIPADO DEL ASEGURADO POR HOSPITALIZACIÓN DE UN FAMILIAR - HASTA SEGUNDO GRADO
- \* RETORNO ANTICIPADO POR SINIESTRO GRAVE EN SU RESIDENCIA HABITUAL O LOCALES PROFESIONALES
- \* ENVÍO DE MEDICAMENTOS
- \* TRANSMISIÓN DE MENSAJES URGENTES
- \* GESTIÓN Y COORDINACIÓN DE SERVICIOS ASISTENCIALES
- \* INDEFINIZACION POR PÉRDIDA DE BIENES - HASTA 50 EUROS/DIA - MAXIMO 10 DIAS - POR

[https://www.mapfre.es/MAPNET\\_ALTAASEGURADOS/SeleccionPoliza/MostrarD...](https://www.mapfre.es/MAPNET_ALTAASEGURADOS/SeleccionPoliza/MostrarD...) 04/11/2021



- \* DEMORA EN LA SALIDA DEL MEDIO DE TRANSPORTE AÉREO - HASTA 50 EUR/TRAMO SUPERIOR 6 HRS (LIMITE 150 EUROS.)
- \* DEMORA DE VIAJE POR OVER BOOKING EN MEDIO DE TRANSPORTE AÉREO (LIMITE 100 EUROS.)
- \* PÉRDIDA DE CONEXIONES AÉREAS - FACTURAS ORIGINALES Y CERTIFICADO DEL TRANSPORTISTA (LIMITE 100 EUROS.)
- COBERTURA DE EQUIPAJES:
  - \* INDEMNIZACIÓN POR PÉRDIDA DEFINITIVA, ROBO O DETERIORO EXTERIOR DEL EQUIPAJE FACTURADO EN VUELO - CERTIFICADO DEL TRANSPORTISTA - POR DETERIORO EXTERIOR DEL EQUIPAJE FACTURADO - LIMITE 60 EUR - POR PERDIDA DEFINITIVA O ROBO DEL EQUIPAJE FACTURADO (LIMITE 500 EUROS.)
  - \* INDEMNIZACIÓN POR DEMORA DE EQUIPAJES FACTURADOS EN VUELO - MINIMO 6 HORAS - FACTURAS ORIGINALES Y CERTIFICADO DEL TRANSPORTISTA (LIMITE 150 EUROS.)
  - \* LOCALIZACIÓN Y ENVÍO DE LOS EQUIPAJES Y EFECTOS PERSONALES
- COBERTURA DE GASTOS DE CANCELACIÓN E INTERRUPCIÓN DEL VIAJE:
  - \* GASTOS DE CANCELACIÓN DEL VIAJE - VIAJE NO CRUCER (LIMITE 1800 EUROS.)
- COBERTURA DE ACCIDENTES PERSONALES:
  - \* INDEMNIZACIÓN POR FALLECIMIENTO ACCIDENTAL DEL ASEGURADO DESPLAZADO (LIMITE 50000 EUROS.)
  - \* INDEMNIZACIÓN POR INVALIDEZ PERMANENTE DEL ASEGURADO DESPLAZADO SEGÚN BAREMO (LIMITE 50000 EUROS.)
- COBERTURA DE RESPONSABILIDAD CIVIL:
  - \* RESPONSABILIDAD CIVIL PRIVADA (LIMITE 60000 EUROS.)
- CLAUSULAS ESPECIALES:
  - \* En la presente póliza bajo la garantía "Asistencia médica por enfermedad o accidente del Asegurado desplazado fuera de su país de residencia habitual", quedarán cubiertos los gastos sanitarios que se deriven de un posible siniestro en el que el asegurado se vea afectado por el covid-19, hasta el límite establecido en las Condiciones Particulares.
  - \* In this policy under the guarantee "Medical assistance due to illness or accident of the Insured displaced outside their country of habitual residence", the health expenses arising from a possible situation in which the insured is affected by the covid-19 will be covered, up to the limit established in the Particular Conditions.

Ver resto de pólizas

Consultar

Dar de alta asegurados

### 9.3. NAZIOARTEKO IKASKETA EGONALDIEN PROZESUA

# Nazioarteko Egonaldiak Prozesua

## Nominazioa

Atzerriko unibertsitateari esatea gure ikaslea zarela eta baimena duzula bertan matrikula egiteko.

01



02

## Atzerritik posta

Jasotzen duzunean hasiko gara biltzen prozesu guztia egiteko

## Matrikula egin

Atzerriko unibertsitateko Online plataforman, dokumentazioa igo, materialak aukeratu, Learning agreement..

03



04

## Onartuak izan

Azken hitza atzerriko unibertsitateak du.

## Logela

Unibertsitate bakoitzak proposatzen duenaren arabera, erresidentzia, pisua

05...06



Hegaldietan deuseztapen aseguruua kontratatu